

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. DESBERDINTASUN SOZIALA AREAGOTZEN ARI DELA ADIERAZTEN DUTE DATUEK
2. UROPAREN INPOSIZIOA?
3. IBEXeko KONTSEILARIEK BATEZBESTE 279.300 EURO IRABAZI ZITUZTEN 2011n
4. ¿ZERGA IRUZURRA? IBEXeko ENPRESEN %94ak PARADISU FISKALETAN DIHARDU
5. ZERGA BILKETA EZ DA KRISIAREN ERAGINEZ MURRIZTEN
6. MURRIZKETA ETA ERREFORMA POLITIKEK LANGABEZI ETA BABESIK EZ GEHITZEN DUTE
7. PROPOSAMENA: TOKIKO MONETA, SOZIALA, EKOLOJIKOA ETA EUSKARAREN ALDEKOA

1. DESBERDINTASUN SOZIALA AREAGOTZEN ARI DELA ADIERAZTEN DUTE DATUEK

ELGE (erdaraz OCDE) gobernu arteko erakunde bat da, 34 estaturik industrializatuenak biltzen dituena, eta betidanik izan da egungo krisira eraman gaituzten politiken aitzindari. Orain ELGEk aitortzen du errenta desberdintasuna eta pobrezia gehitzen ari direla. Duela gutxi argitaratu duen txosten batean dioenez, azken 30 urteotan aberatsen eta pobreen arteko aldea handitu egin da, eta hazkundera etengabekoa izan omen da.

Haatik, gauza bat oso deigarria da: Aztertu dituzten azken hiru urteetan (2007-2010 bitartean) desberdintasunak aurreko hamabi urteetan baino gehiago hazi dira. Krisiak eragindako kaltea ez da guztientzat berdina izan. Txostenak lehenik aztertzen du merkatuko diru-sarreraren desberdintasuna nola bilakatu den. Ondoren, zergen eta transferentzia sozialen banaketa efektuak aintzat hartzen ditu, eta amaitzeko, azken emaitzan desberdintasuna kopuru batean islatzen du. Azterketaren ondorioz nabarmenenak hauek dira:

- I. Merkatuko zuzeneko desberdintasuna asko hazi zen ELGEren baitan krisiaren lehen urteetan: 1,4 puntu. Desberdintasuna gehien areagotu zen estatuak espainiarra (%6) eta Irlanda izan ziren (%7).
- II. Zergek eta transferentzia sozialek desberdintasunak leuntzen dituzte. Halere, efektu horiek gorabehera, desberdintasuna ELGEen gehitu egin zen.
- III. Diru-sarreraren desberdintasuna batik bat espainiar estatuan hazi zen. Gini indizea (bere balioa 0 litzateke pertsona guztiek diru-sarrera berriak izanez gero, eta 1, pertsona bakarrak diru-sarrera guztiak jasoko balitu), 0,31etik 0,34raino hazi zen 2007 eta 2010 bitartean; hau oso hazkunde handia da. Desberdintasunari dagokionez, espainiar estatua

- zortzigarrena da ELGEko 34 kideen artean.
- IV. Batez besteko errenta 2007 eta 2010 bitartean ELGE mailan %0,4 jaitsi zen, eta biztanleriaren %10 txiroenak, aldiz, %1,9 galdu zuen. Espainian datua askoz ere larriagoa da: batez besteko errenta %3 gutxitu baitzen, %10 pobreenak %14 galdu zuen, eta %10 aberatsenak, berriz, %1 baino ez.
 - V. Espainiar estatuko pobrezia erlatiboaren maila (%15,4) ere ELGEko batez bestekoa (%11,1) baino askoz altuagoa da; soilik sei estatutan da handiagoa (Japonia, Estatu Batuak, Txile, Turkia, Mexiko eta Israel).
 - VI. Datuok istorioaren hasiera besterik ez dute kontatzen, hots, 2010ra arte. Egoera ekonomikoak geroztik okerrera egin du; jende askok langabezia prestazioa galdu du, eta gobernuak austeritatezko aurrekontu-politikak ezarri dituzte. Aurrekontuak finkatzeko neurriak aplikatuz gero, zerga eta prestazio sozialen sistemak gero eta ahalmen txikiagoa izango du desberdintasun eta pobrezia maila handia (eta ziurrenik hazkorra) gutxitzeko.

2. EUROPAREN INPOSIZIOA?

Hain zuzen greba orokorreko egunez, maiatzaren 30ean, Europar Kontseiluak Espainiako gobernuaren 2013ko Erreforma Programa Nazionalaren inguruko gomendioak onartu zituen.

Europar Batasuneko prozesu neoliberal eta antisoziala gobernuen artean erabaki dute, baita espainiarrak ere. Lisboako Ituna hasiera besterik ez zen izan; ELAk itun hura arbuiatu egin zuen, eta erreferendumean ezezko botoa eskatu zuen. Gero, alderik negatiboan areagotu egin dituzte -ikuspegi sozial zein demokratikotik-, gobernuak hainbat akordio egin baitituzte, "Gobernantza europarra" izen aseptikoarekin; honen baitan

gobernuei exijitzen zaie eskubide laboral eta sozialak mozteko neurriak har ditzatela, defizit publikoa murrizteko aitzakiaz. Erabaki horien artean dago Europar Kontseiluaren "gomendioak" onartzeko konpromisoa.

Kontseiluaren gomendioak murrizketa gehiago etorriko direla esan nahi dute. Gizarteari azaldu nahi izan diote espainiar gobernuak defizit publikoaren maila malgutzea lortu duela. Baina guztiek dakite finkatutako helburuak ez direla beteko. Kopurua da gutxienekoa. Axola duena da helburu horiek aitzakia bihurtzen direla murrizketa lazgarriak egiteko (aurrekontuetan, pentsioetan, lege laboraletan, etab.).

Kontseiluak emandako gomendioek hori agerian uzten dute. Hain zuzen, besteak beste neurri hauek eskatzen ditu:

- 2013 amaitu baino lehenago pentsioen beste erreforma bat, "iraunkortasun faktorea arautuz... besteak beste finkatuz erretiro adina atzeratu egingo dela bizi-itxaropena gehitu ahala".
- 2012ko erreforma laborala ebaluatzea, beranduenera aurtengo uztaileko, eta beharrezko balira aldaketak aurkeztea (irailerako).
- 2014ko martxorako zerga-erreforma sistematiko bat egitea, zuzeneko fiskalitateari (PFEZ edota Sozietateen gaineko Zerga) nahiz zeharkakoari (BEZ, zerga bereziak, etab.) dagokionez.
- Merkatuko Batasuna bermatzeko legegaiaren urgentziaz onartu eta aplikatzea.

Erabakiok guztiok ez dira Europaren inposizioak, EBko gobernuak erabakitako ereduaren aplikazio koherentea baizik. ELAK jardunbide hau ez du onartzen, eta bertan behera gera dadila galdetzen du. Errotik horren aurka gaude.

Gainera, neurriok argi erakusten digute agintzen dutenek ez daukatela beren politikak aldatzeko

asmorik. Horiek alde batera uzteko modu bakarra dago, mobilizazioa eta borroka.

3. IBEXeko KONTSEILARIEK BATEZBESTE 279.300 EURO IRABAZI ZITUZTEN 2011n

Eskuindar postulatu eta patronalak KPIaren gaitetiko soldata igoerak hondamena direla diote behin eta berriro. Krisian gaudenez, gerrikoa estutu beharra daukagu, diote. Badago soldatak jaisteko hauek Brent kupelaren bilakaerarekin erlazionatzea bezalako burutapena dutenik ere, edozerk balio du soldatak murrizteko.

Argi dagoena zera da, Ibex-eko kontseilariak (gehienak gizonetakoak) ez dutela teoria hau aplikatzen. Joan den astean Balore Merkatuaren Komisio Nazionalak argitaraturiko Balore Merkatu eta bere Jokabideen 2012 Urteko Txostenaren arabera, enpresa horien Kontseiluetako kide bakoitzaren batez-besteko irabazia 279.300 eurotako izan zen 2011n, 2010ean baino %4 gehiago. Batez-besteko igoera da hau, eta beraz, badaude are igoera handiagoak izan zituzten enpresak ere. Hain zuzen ere, 3 elkartetan igoera %7,3koa izan zen.

Batez-besteko soldata gordina (hau da, Gizarte Segurantzako atxikipean, PFEZa edo beste inolako kontzepturik kendu gabe) 26.593,7 eurotako izan zela 2010ean EAEn, edo 23.824,8koa Nafarroan gogoratu behako litzake agian (dagoen azken datua). Edo eta gutxieneko batez-besteko soldata 8.979,6 eurotako izan zela 2011n.

Enpresako kontseilu bakoitzeko batez-besteko ordainketa (enpresa horietan Kontseiluak irabazitako guztia), 2,9 milioi eurotako izan zen 2011n, 2010ean baino %1,5 gehiago. Enpresen %25,5ean igoerak %10aren gaitetik egon ziren, eta enpresen %14,5ean, %20aren gaitetik.

Kontseilu horietan ezarritako soldatek “egitura ezberdinak jarraitzen dituztela, eta kasu batzuetan, oso zaila suertatzen dela ordaingarriak diren kontzeptu guztiengatik kontseilari batek sorturiko ordainsari guztiak ezagutzea” ere adierazten du txosten horrek. Izan ere, “datuak (soldatei buruzkoak) kapituluetan banatzen dira ordaingarriak diren kontzeptuen arabera, eta kontseilari bakoitzak kontzeptu bakoitzagatik jasotzen duena adierazten dute, baina kasu askotan ez dute kontzeptu guztien batura erakusten. Gainera, kontseilari gisa buruturiko funtzioengatik banakako ordainsari osoaren laburpen bat banatzen duten elkarteak daude, baina hauek ez dute exekutibo gisa buruturiko funtzioengatik jasotako soldata eta ordainsari aldakorrik sartzen”. Gainera, “kasu batzuetan, ez dela filialen administrazio organoen kide izatearren kontseilariak jasotako ordainsarien informaziorik ematen” ere ondorioztatzen du txostenak. Gardentasun eta austeritatearen adibide ona.

4. ¿ZERGA IRUZURRA? IBEXeko ENPRESEN %94ak PARADISU FISKALETAN DIHARDU

Krisialdiari irtenbide soziala emateko oinarria da fiskalitatea. Zerga politikaren bidez erabakitzen da nork, zenbat, eta nola ordaintzen dituen zergak. Baina zerga iruzurra baimenduz, nork ez duen zergarik ordaintzen ere erabakitzen da.

Ibex-35eko enpresen %94ak, hau da, 35 enpresetatik 33k, paradisu fisikaletan presentzia izatea ez da kasualitatea. Taldeko enpresen bidez edo holding elkartearen bidez oso fiskalitate baxuko herrialdeetan bizilekua hartuz burutzen dute iruzurra, paradisu hauetan aitorturiko jarduerak ez duelarik inolako harremanik lurralde horietako ondasun edo zerbitzuekin.

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Behatokiak eginiko “Erantzukizun Sozial Korporatiboa Ibex35-

eko enpresen urteko memorietan” txostenak argitaratu ditu datu hauek.

Paradisu fisikaletan bizilekua hartzen duten Ibex-eko menpeko enpresa eta partaidetutako enpresetan emaniko izugarritzko hazkundera aipatzen du txosten honek. Zehazki, 2010 eta 2011 bitartean 83 enpresa gehiagok hartu zuten bizilekua paradisu hauetan. 437 dira guztira, 2009an baino %60 gehiago, guztiak Ibex35-eko enpresen menpekoak.

Estatuko enpresa garrantzitsuenak iruzurra zein erraz burutzen dutenaren adibide, enpresa hauetatik 80 Delaware-ko (Estatu Batuak) eraikin bakar bitan helbideratuak daudela da. Hau da, 80 enpresak hartu dute bizilekua lokal bitan. Gainera, era honetako jardueradun Ibex-eko 33 enpresetatik batek ere ez duela egiten “paradisu fisikaletan eragiketa eta inbertsioak onartzeko irizpideei buruzko aipamenik” adierazten du txostenak.

Paradisu fisikaletan elkarte kopuru handiena duten enpresen ranking-ari dagokionez, Banco Santander dago goreneko postuan (72 enpresekin 2011n), ACSk (71), BBVAK (43), Repsol YPFk (43) eta FCCk (26) jarraitzen diotelarik.

Enpresa handien funtzionamenduari buruzko beste datu argigarri batzuk ere aipatzen ditu txostenak: ustelkeriari dagokionez, enpresen %3ak soilik egiten dituu publiko herrialdea eta zenbatekoa zehaztuz dohaintzan emaniko diru kopuruak, barkaturiko maileguak edo eta erakunde eta alderdi politikoei eginiko ekarpenak; enpresa hauetako kontseilarien %7ak aurretiaz administrazio publikoan karguak izan zituen; beraien administrazio kontseiluetan emakumeak ez dute %12a gainditzen. Datu guzti hauek, botere politikoari agintzen dion ekonomiaren funtzionamenduaren adierazle dira.

5. ZERGA BILKETA EZ DA KRISIAREN ERAGINEZ MURRIZTEN

Europako Batasuneko estatu ezberdinetako zerga presioari buruzko informazioa argitaratu du Europako Batzordeak 2011 ekitaldirako, hau da, sorturiko aberastasunaren edo BPGd-aren zein portzentaje zuzendu zuen estatu bakoitzak zerga eta gizarte kotizazioak ordaintzera ekitaldi horretan. Datu hauek Hego Euskal Herrikoekin (HEH) alderatzeak ondorio interesgarrietara heltzea ahalbidetzen digu.

27-EBk sorturiko 100 eurotik 38,8 bideratu zituen batez-beste zerga eta kotizazioak ordaintzera, eta HEHk 30,2 soilik (30,8 Euskal Autonomi Erkidegoak, eta 28,2 Nafarroak). HEHko zerga presioa 2011n 27-EBko batez-besteokoaren tamainakoa izan balitz, **7.435 milioi euro gehiago bildu beharko lirатеkeela** esan nahi du horrek (5.295 EAEn eta 2.140 Nafarroan).

Fiskalitatean estaturik aurreratuenekin aldea nabarmen handiagoa litzakeela ikus daiteke ondorengo taulan; Danimarka (BPGd-aren %47,7ko zerga presioa), Suedia (%44,3), Belgika (%44,1), frantziar Estatuak (%43,9), Finlandia (%43,4), Italia (%42,5), edo Austria (42%) bezalako estatuak ari gara, 27-EBeko batez-bestekoa baino presio altuagoa dutenak. Taularen beheko aldera begiratzen badugu, 27 estatuetatik 6k bakarrik dutela EAEk baino zerga presio baxuagoa ikus dezakegu (Irlandak bakarrik Euro Guneko 17 estatuetatik), eta baita Letonia, Bulgaria eta Lituaniak dutela Nafarroak baino zerga presio baxuagoa ere (Irlandak ere Nafarroak baino presio altuagoa dauka). Adierazgarria da **Espainiar estatuak ere HEHk baino presio altuagoa** duela ikustea (1.024 milioi euro baliokideko aldearekin).

ZERGA PRESIO OSOA, ZEHARKO ZERGENA, ZERGA ZUZENENA ETA GIZARTE SEGURANTZARA KONTRIBUZIOENA (BPGd/%). 27-EB, 2011

	OSOA	ZEHARKAKOAK	ZUZENAK	G.S..
DANIMARKA	47,7	17,0	29,9	1,0
SUEDIA	44,3	18,6	18,7	7,0
BELGIKA	44,1	13,1	16,8	14,3
FRANTZIAR E.	43,9	15,5	11,8	16,9
FINLANDIA	43,4	14,4	16,5	12,5
ITALIA	42,5	14,4	14,8	13,4
AUSTRIA	42,0	14,6	13,0	14,6
27-EB	38,8	13,4	12,9	12,7
ALEMANIA	38,7	11,5	11,6	15,5
HERBEHEREAK	38,4	12,0	11,7	14,8
ESLOVENIA	37,2	14,4	7,9	15,0
LUXENBURGO	37,2	12,0	14,1	11,1
HUNGARIA	37,0	17,0	6,9	13,1
ERRESUMA B	36,1	13,6	15,9	6,7
TXIPRE	35,2	14,7	11,7	8,7
TXEKIAR E.	34,4	11,8	7,3	15,4
MALTA	33,5	14,2	13,2	6,1
PORTUGAL	33,2	13,9	9,9	9,3
ESTONIA	32,8	14,2	6,6	12,1
POLONIA	32,4	14,0	7,1	11,5
GREZIA	32,4	13,0	8,8	10,6
ESPAINIAR E.	31,4	10,2	9,9	12,1
EAE	30,8	8,7	9,3	11,9
HEH	30,2	8,8	8,9	11,7
IRLANDA	28,9	11,4	12,5	5,0
ESLOVAKIA	28,5	10,8	5,4	12,3
ERRUMANIA	28,2	13,2	6,0	9,0
NAFARROA	28,2	8,9	7,6	10,8
LETONIA	27,6	11,6	7,4	8,6
BULGARIA	27,2	14,8	5,2	7,3
LITUANIA	26,0	11,9	4,4	9,8

Iturriak: Europako Batzordea, Eusko Jaurlaritzza, Eustat, Nafarroako Gobernuak, Instituto de Estadística de Navarra, Tesorería General de la Seguridad Social

Gure agintariak zerga presioaren jaitsiera, hau da, diru sarreren jaitsiera, ekonomi krisiak eragin duela diote. Baina jaitsiera hau askoz apalagoa izan da Batasunean, eta han ere eman da krisialdia. Zehazki, 2007. urtetik (krisialdiaren egungo fasea hasi aurretik), 27-EBko zerga presioa 0,6 puntutan jaitsi da, HEHn baino 5,8 aldiz gutxiago, hemen 3,3 puntutan murriztu baita (2,9 puntu EAEn eta 4,6 puntu Nafarroan). Bestela esanda, zerga presioa %1,4 jaitsi da 27-EBn 2007 eta 2011 artean, eta %9,8 HEHn (%8,5 EAEn eta %14,1 Nafarroan). Alderaketa honek **zerga bidezko diru sarreren jaitsieraren arrazoi nagusia ez dela krisia erakusten du, baizik eta jaitsiera batez ere Foru Ogasunek aplikaturiko zerga politiken ondorioz eman dela.**

Zerga presioan **alde nagusia** zeharkako zergetan daukagu, BPGd-aren 4,3 punturekin (4,7 EAEn kasuan). Are gehiago, 27-EBko estatu batek ere ez du presio baxuagorik zeharkako zergetan. Zerga zuzenetan daukagu hurrengo aldea, 27-EBeko batez-bestekoarekin 3,6 puntuko defizitarekin (4,1 Nafarroaren kasuan). Azkenik, gizarte kontribuzioetan 0,8 puntuko aldea dugu 27-EBrekiko (1,3 Nafarroaren kasuan). Adierazgarria da espainiar Estatuak zerga presio altuagoa duela bai zeharkako zergetan, bai zerga zuzenetan, eta baita kontribuzio sozialetan ikustea.

6. MURRIZKETA ETA ERREFORMA POLITIKEK LANGABEZI ETA BABESIK EZA AREAGOTZEN DUTE

Langabezian izena emandako pertsonen kopurua 231.403tako izan da maiatzean Hego Euskal Herrian, eta honek, **20.946 pertsonatan igo dela azken urtean** adierazten du (ia %10 gehiago), nahiz eta 1.630eko jaitsiera eman azken hilean. Urteko igoera hau handiagoa da 27-EBkoa baino, langabe kopurua %6,7a igo baita han.

Era honetara, **langabezi tasa** %17,7an kokatu da

HEHn, 27-EBko tasa baino 6,7 puntu altuago (%11). Gure langabezi tasa Portugalen antzekoa da (%17,8), eta 27-EB osotik, espainiar Estatuak (%26,8) eta Greziak soilik gainditzen dute (%27).

Gainera, **haziz doa inolako prestaziorik jasotzen ez duen langabe kopurua**. 109.223 pertsona daude Hego Euskal Herrian langabezian izena emanda eta inolako prestaziorik jaso gabe, %46,9a. Langabezian izena emanikoen 3tik 1ek soilik kobratzen du langabeziako prestazio kontributiboa (%32,6k). Koberturen bilakaera ere kezagarria da, prestaziorik jasotzen ez duen langabe kopurua 2,9 puntutan igo baita urte betean, eta jaitsi egin baita jasotzaileek kobratzen duten zenbatekoa (prestazio kontributiboa jasotzen dutenen kopurua 1,9 puntutan jaitsi da urtean zehar).

Behin-behinekotasuna murrizteko ustezko helburuarekin buruturiko erreformak burutu arren, Hego Euskal Herrian urteko lehen 5 hiletan sinaturiko kontratuen %7,2a bakarrik izan da behin-betikoa (%92,8a behin-behinekota izan da), aipaturiko erreformen zentzugabekeria erakusten duena.

Begi bistakoa da **murrizketa eta erreformen politika antisozialek** gero eta miseria eta prekarietate gehiagora garamatzatela. Antolakuntza eta gizarte mobilizazioek soilik aldatu ahal izango dituztela langabezia, miseria eta pobrezia politikak hauek ohartarazten du ELAk, joan den maiatzaren 30eko Greba Orokorrean aldarrikatu genuen bezala.

7. PROPOSAMENA: TOKIKO MONETA, SOZIALA, EKOLOJIKOA ETA EUSKARAREN ALDEKOA

Zer da tokiko moneta? Eremu zehatz batean ondasun eta zerbitzuen elkartrukea burutzea posible egiten duen tresna da. Moneta ofizialak (adibidez euroak) erabilera orokorra duen bitartean, tokiko monetak aldaketa edo truke balioa du berari boluntarioki atxikitutako pertsona, elkarte edo enpresentzat. Iparraldeko Euskoa adibide bikaina da tokiko monetak nola funtzionatzen duen ikusteko (<http://www.euskalmoneta.org/>).

Hauek dira tokiko monetak bultzatzeko arrazoi nagusiak:

- Tokiko ekonomiaren garapena- Ekonomiaren bir-lokalizazioa bultzatzen du. Tokiko dirua tokian erabiltzen da halaberrez, eta honek, jarduerak bultzatzen ditu eremu horretan.
- Diruaren erabilera truke balio gisa, eta ez espekulazio tresna gisa- Tokiko monetaren dirua ondasun eta zerbitzuak

elkartrukatzeko soilik erabili daiteke, eta beraz, ezin da jarduera espekulatiboetara zuzendu. Ohiko monetak ez dauka muga hau.

- Tokiko sareen garapena- Tokiko sareen sorrera eta garapena errazten du, eta baita komunitarioago eta hurbilagoak diren giza harremanak ere.
- Ekonomiaren eraldatze sozial eta ekologikoa- Alde batetik, tokiko ekonomia bultzatzean, mugikortasuna eta energia fosilen erabilera murrizten du. Bestetik, Euskoak egin duen bezala, aldaturiko euro bakoitzeko inbertsio fondo baten sorrera posible egiten du (Herrikoa Iparralden), sozialki eta ekologikoki iraunkorrak diren proiektuetan inbertituko diren ekonomi baliabidez osatua.
- Euskararen aldeko konpromisoak- Sistemaren parte izan ahal izateko baldintzen artean balio ezberdinak sartu daitezke, adibidez dendetan euskara erabiltzea, e.a. Baldintza etiko hauek jarraipen iraunkorra izan behar dute.